

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Iragarkia

2024ko urriaren 29an egindako ohiko udal osoko bilkuran «Hirigintza Aholku Batzordearen arautegia»ren aldaketaren hasierako onarpena eman zitzaion.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 49. artikuluan xedatutakoa jarraiki, espedienteak jendaurrean jarzen da, interesatuak, egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, guzti hori ondoko arauari jarraituz:

a) *Erakusgai egongo den lekua:* Udal honetako Idazkaritzan.

b) *Aztertze eta, hala balegokie, erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, lanordutan.

c) *Aurkezteko lekua:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Oroko-rran edo telematikoki www.astigarraga.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

e) *Erreklamazioak aurkeztu behar zaizkion organoa:* Udalbatza.

Epe horretan erreklamaziorik zein iradokizunik aurkeztu ezean, 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudia behin betikoz onartutzat joko da, eta 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Erregelamenduaren testu osoa argitaratuko da.

Astigarraga, 2024ko urriaren 29a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (7886)

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Anuncio

En el Pleno ordinario celebrado 29 de octubre de 2024 se procedió a aprobar inicialmente la modificación del «Reglamento del Consejo Asesor de Urbanismo».

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, el expediente se somete a exposición pública, al objeto de que las personas interesadas puedan formular cuantas alegaciones y sugerencias estimen oportunas, todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se hallan de manifiesto:* En la Secretaría de este Ayuntamiento.

b) *Plazo para examinarlos y, en su caso, para formular las reclamaciones:* 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Lugar de presentación:* En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento o telemáticamente en www.astigarraga.eus. Así mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

e) *Órgano ante el que se recurre:* Ayuntamiento Pleno.

De conformidad con lo establecido en el último párrafo del citado artículo 49 de la Ley 7/1985, en el caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada la modificación, y en cumplimiento del artículo 70.2 de la Ley 7/1985 se publicará el texto integro del Reglamento.

Astigarraga, a 29 de octubre de 2024.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (7886)



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

Astigarragako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen Araudia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak (2006ko ekainaren 30ekoa), bere printzipioen artean elkar hartze sozialaren, herritarren partehartzearen eta informazio publikoaren printzipioak biltzen ditu. Halaber, Plan Orokorrek behin betiko onartzeko berezko eskumena edo eskumen eskuordetua duten udalerriei Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea –eztabaidarako eta aholkuak emateko tokiko organo gisa– eratzeko betebeharra ezarri die. Batzorde horrek hirigintza planak gizartean itundu daitezzen ahalbidetzea izango du helburu. Aholku batzorde horrek tokiko entitateari hirigintza antolamendurako oinarritzko tresnak egin eta onartzen laguntzea du xede; eta, zehatzago, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko zehaztapenei lotuta.

Aipatutako legeko 110. artikulua, bestalde, Aholku Batzordearen oinarritzko ezaugarrien eratzeta eta zehaztea helarazten ditu udal bakoitzak egin, izapidetu eta onartu behar duen araudia onartzera.

Helburu horrekin, Astigarragako Udalak, araudi honekin Astigarragako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen sortzea eta funtzionamendua arautu asmo du, kide anitzeko eta eztabaidarako organo aholku-emaile gisa. Organo horrek hirigintza plangintzan gizartearen partehartzea antolatzea ahalbidetuko du, hirigintzako ondasunak babestea eta udalerraren garapen zentzuzkoa eta sostengagarria bultzatuz.

Araudi honen bitartez, Aholku

Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Astigarraga.

La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, recoge entre sus principios el de concertación social, el de participación ciudadana y el de información pública, y establece para aquellos municipios con competencia propia o delegada para la aprobación definitiva de los Planes Generales la obligación de constituir un Consejo Asesor del Planeamiento Municipal como órgano local de carácter consultivo y deliberante, cuyo fin es llegar a concertar socialmente los planes urbanísticos. Este Consejo Asesor tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones de su Plan General de Ordenación Urbana.

El artículo 110 de la citada Ley remite, por otra parte, la constitución y definición de las características básicas del Consejo Asesor a la aprobación de un Reglamento que cada Ayuntamiento debe formular, tramitar y aprobar.

Con este objetivo, el Ayuntamiento Astigarraga, mediante el presente Reglamento se propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Astigarraga como órgano colegiado, consultivo y deliberante, que permitirá articular la participación social en la planificación urbanística, impulsando la protección del patrimonio urbanístico y el desarrollo racional y sostenible del municipio.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

Batzordearen oinarrizko egitura, eginkizunak eta araubide juridikoa ere zehaztu dira, kide anitzeko organo dela aintzat hartuz.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko (2006ko ekainaren 30ekoa) 110. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako araudi hau eman da.

I. KAPITULUA UDAL PLANEAMENDUARI BURUZKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea sortzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko (2006ko ekainaren 30ekoa) 110. artikuluan xedatutakoarekin bat, araudi honen bitartez Astigarragako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea sortu eta arautu da.

2. Astigarragako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea eztabaidarako eta aholkuak emateko tokiko organoa da, eta elkar-hartze sozialaren eginkizunak betetzeko sortu da, hiriko hirigintza planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari lotura.

2. artikulua. Atxikitzea.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea hirigintza arloan eskuduna den udaleko arloari dago atxikia.

A través de este Reglamento se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado.

En consecuencia, de acuerdo con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se dicta el presente Reglamento.

CAPÍTULO I NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL

Artículo 1. Creación del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal.

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, mediante el presente Reglamento se crea y regula el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Astigarraga.

2. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Astigarraga es un órgano local de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos de la ciudad.

Artículo 2. Adscripción.

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se adscribe al área municipal competente en materia de urbanismo.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

3. artikulua. Izaera juridikoa.

Udal Plangintzaren Aholku Batzordea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan araututako kide anitzeko organoa da.

Artículo 3. Naturaleza jurídica.

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se configura como un órgano colegiado de los regulados en el artículo 15 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

4. artikulua. Eginkizunak eta helburuak.

1. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeari dagozkio honako zeregin hauek:

a) Udalak udalerrriaren planeamendu orokorraren inguruan egingo dituen azterketen, programen, arauen eta jarduera lerroen berri izatea, bai eta horiei buruzko txostenak ematea ere.

b) Bestelako instantzietatik Udalean azter daitezten proposatuko diren planeamendu orokorreko zehaztasunei dagozkien ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea.

c) Aholku Batzordeak informazioa bilduko duen hiri antolamenduko beste edozein plan edo tresna ezagutzea, bereziki Hirigintzako Ondareari buruzko Katalogoan eragina izango duten antolamendu planak edo tresnak; eta horiek jakinaraztea, beharrezko den kasuetan.

2. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen proposamenak edo aukerak gomendioak izango dira udaleko gobernu organoentzat. Horrela, organo horiek erantzun funtsatua eman beharko dute baztertzen edo aldatzen dituzten

Artículo 4. Funciones y fines.

1. Corresponderá al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Conocer cuántos estudios, programas, directrices y líneas de actuación se elaboren por el Ayuntamiento en materia del planeamiento general del municipio así como emitir informes sobre los mismos.

b) El estudio de aquellas iniciativas, sugerencias, propuestas y alternativas relativas a las determinaciones de planeamiento general que desde otras instancias se planteen al Ayuntamiento para su consideración.

c) Conocer cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística sobre el que el Consejo recabe información, en particular, aquellos planes e instrumentos de ordenación que afecten al Catálogo del Patrimonio Urbanístico, e informar, en su caso, sobre los mismos.

2. Las propuestas o alternativas del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, teniendo éstos que



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

gomendioei dagokienez.

3. Dena dela, kasuan kasuko hirigintza dokumentua behin betiko onartzean, Udalak justifikatu egin beharko du Aholku Batzordeak proposatutakoetatik bestelakoak diren konponbideak hartzea.

5. artikulua. Txostenak ematea.

1. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeak nahitaez jakinarazi beharko du lehen formulazioko txostenetan hiriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean egingo diren berrikuste osoak edo zatikakoak zein aldaketa zehatzak, bai eta egiturazko hirigintza antolamendurako bestelako tresnak ere.

a) Lehen formulazioko txostenetan, edo Plan Orokorrean, Sektorizazio Planaren edo Konpatibilizazio Planaren berrikuste osoari nahiz zatikakoari dagozkien txostenetan nahitaez eman beharko du txostena Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeak, aurrerapen **eta hasierako onarpen** dokumentuaren edukiari dagokionez.

b) Plan Orokorrean, Sektorizazio Planaren edo Konpatibilizazio Planaren aldaketa zehatza egiteari buruzko espedienteetan, nahitaez eman beharko da txostena, jendaurrean erakutsiko den lehen dokumentuaren edukiari dagokionez.

2. Halaber, Aholku Batzordeak, gutxienez batzordeko kideen herenak hala eskatzen duenean, bere txostenerako hirigintza antolamendurako bestelako planen eta

dar respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que sean desechadas o modificadas.

3. En todo caso, en el acto de aprobación definitiva del documento urbanístico correspondiente deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

Artículo 5. Emisión de informes.

1. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal informará con carácter preceptivo en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana y otros instrumentos de ordenación urbanística estructural:

a) En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal respecto al contenido del documento de Avance **y el de aprobación inicial**.

b) En los expedientes referentes a la modificación puntual del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del primer documento que se someta a información pública.

2. Asimismo, el Consejo Asesor, cuando así lo soliciten al menos la tercera parte de sus miembros, podrá recabar para su informe el conocimiento de otros planes e



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

tresnen ezagutza bildu eta jakinarazi ahalko du.

3. Udalak ofizioz jakinaraziko die Aholku Batzordeko kideei artikuluko honetako 1. atalean zerrendatutako edozein espediente hasi izana, jendaurrean erakutsi aurretik.

4. Aholku Batzordearen nahitaezko txostenak, plangintza aurrerakinaren eta hasieraz onartutako dokumentuaren jendaurreko erakustaldiaren epean egin beharko da; edo, aurrerakinik izapidetzen ez bada, hasiera batean onartutako dokumentuaren jendaurreko erakustaldiarenean. Txosten horiek epe barruan ez emateak, onartzeko ardura duten udal organoei gaitasuna emango die espedienteak izapidetzen jarraitzeko.

Nolanahi ere, Kontseiluak, hirigintza-dokumentuari buruzko eztabaida egin ondoren, bilera amaitu ondoren txostena egitea eta aktan jasotzea erabaki ahal izango du.

5. Hala ere, Plan Nagusia osotasunean berraztertze espedientean, gainera, honako tramite hauek jakinaraziko zaizkio Kontseiluari:

5.1. Aurrerakinaren prestakuntza. Aurkeztutako Aurrerakinaren eta Iradokizunen eztabaida.

5.2. Irizpideak eta Helburuak formulatzea.

5.3. Hasieran Onesteko dokumentua. Agiriaren eztabaida.

5.4. Aurkeztutako alegazioen azterketa.

instrumentos de ordenación urbanística e informarlos.

3. El Ayuntamiento informará de oficio a los y las miembros del Consejo Asesor del inicio de cualquier expediente de los relacionados en el apartado 1 del presente artículo antes de someterlo a información pública.

4. La emisión de los informes preceptivos del Consejo Asesor deberá realizarse durante el plazo de información pública del Avance del planeamiento y del documento aprobado inicialmente y, si no se tramitara Avance, en el de información pública del documento aprobado inicialmente. La no emisión en plazo de los citados informes, habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación para proseguir con la tramitación de los expedientes.

De todos modos, el Consejo podrá acordar, una vez realizado el debate sobre el documento urbanístico, emitir el informe tras finalizar la sesión y recogerlo en el acta.

5. No obstante, en el expediente de Revisión total del Plan General se informará además al Consejo en los siguientes trámites:

5.1. Preparación del Avance. Debate del documento y sugerencias presentadas.

5.2. Formulación de criterios y objetivos.

5.3. Documento de aprobación inicial. Debate del documento.

5.4. Análisis de las alegaciones presentadas.

6. La emisión de los informes no



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

6. Nahitaezkoak ez diren txostenak jendaurreko informazio-tramitearen ondoren egingo dira, eta tramite hori egongo ez balitz, Kontseiluko presidentek ezartzen duen epean.

preceptivos se realizarán tras el período de información al público, y si no hubiera dicho trámite en el plazo que fijará el presidente del Consejo.

II. KAPITULUA UDAL PLANEAMENDUARI BURUZKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAKETA

CAPÍTULO II COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL

6. artikulua. Osaketa eta kideak.

Artículo 6. Composición y miembros.

1. Aholku Batzordeak berezko kide hauek izango ditu:

1. El Consejo Asesor estará compuesto por los y las siguientes miembros propios:

— Udaleko alkatea. Batzordeburua izango da.

— El Alcalde o la Alcaldesa del Ayuntamiento, que ostentará la Presidencia del Consejo.

— Hirigintza eta Ingurumen arloko eskumena duen gobernu arloko titularra edo zinegotzi ordezkaria. Lehenengo batzordeburuordea izango da.

— El Concejales delegado, la Concejales delegada o el titular o la titular del área de Gobierno competente en materia de Urbanismo y Medio Ambiente, que ostentará la Vicepresidencia Primera del Consejo.

— Udal-talde bakoitzeko ordezkari bana. Ondorio horietarako, presidentea eta presidenteordeak kide diren udal-taldearen ordezkari gisa zenbatuko dira.

— Una persona representante de cada uno de los grupos municipales. A estos efectos, el Presidente o la Presidenta y los o las Vicepresidentes o Vicepresidentas serán computados como representantes del Grupo Municipal al que pertenecen.

— «Galtzaur» Jubilatuen Etxea Elkarteko ordezkari bat.

— Una persona en representación de Asociación Hogar del Jubilado «Galtzaur».

— Goldea Elkarteko ordezkari bat.

— Una persona en representación de Goldea Elkartea.

— Herriko kultur eragileen ordezkari moduan, Udaleko Kultur Batzordeak izendatutako ordezkari bat.

— Mugimendu feminista ordeztuko duen udaleko Berdintasun Batzordeak izendatutako ordezkari bat.

— Astigarragako Gazte Asanbladako ordezkari bat.

— Una persona nombrada por la comisión de Cultura en nombre de las asociaciones culturales del municipio.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

— Hurrengo Auzo Elkarteko ordezkari bana: Oialume, Ergobia, Santiagomendi eta Perurena.

— Astiko Merkatarien Elkarteko ordezkari bat.

— Mundarro Kirol Elkarteko ordezkari bat.

— Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkarteko ordezkari bat.

— Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko, Sagardo Mahaiko eta Sagardun Partzuergoko ordezkari bana.

— Poligonoetako jabe elkarteen ordezkari bana.

— Udal arkitektoa.

— Udaleko idazkari nagusia. Batzordeko idazkaria izango da.

2. Aholku Batzordeak kide gonbidatu hauek izango ditu:

— Astigarragako Udaleko Alkate- eta hirigintza zinegotzia-ohiak.

— Una persona nombrada por la comisión de Igualdad del Ayuntamiento en nombre del movimiento feminista.

— Una persona en representación de Astigarragako Gazte Asanblada.

— Una persona en representación de las siguientes asociaciones de barrio: Oialume, Ergobia, Santiagomendi y Perurena.

— Una persona en representación de Astiko Asociación de Comerciantes.

— Una persona en representación de Mundarro Kirol Elkartea.

— Una persona en representación de Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkartea.

— Una persona en representación de Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Sagardun Partzuergoa y Sagardo Mahaia.

— Una persona en representación de cada asociación de personas propietarias de los polígonos.

— El arquitecto o la arquitecta municipal.

— El Secretario o la Secretaria General del Ayuntamiento, que ostentará la Secretaría del Consejo.

2. El Consejo Asesor estará compuesto por los y las siguientes miembros invitados/as:

— Ex-alcaldes/ex-alcaldesas y ex-concejales/ex-concejales de urbanismo del Ayuntamiento de Astigarraga.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

3. Presidenteak, presidenteordeak edo Kontseilukideen herenak proposatuta, honako hauek parte hartu ahal izango dute Kontseiluan, aholkulari gisa, hitza dutela baina botorik ez:

— Hirigintzako planak erredaktatzeko ardura duten teknikariek.

— Hirigintzaren nahiz Ingurumenaren gain izena duten adituek.

— Eta beste teknikari espezialista batzuek, Kontseiluan egon daitezen egoki dela iritziz gero.

Kontseiluaren bileretan teknikari horiek egotea, Kontseilukideen herenak eskatzen duenean, presidenteak eskatu beharko du, bileraren deialdia jakin ondoren eta bilera egin aurretik, eta han egon daitezen garaiz eskatuta.

4. Presidenteak proposatuta, Batzarrera joan daitezke, hitza dutela baina botorik ez, kaltetutako eremuaren defentsarako pertsonak, kolektiboak edo plataformak, haiek eskatzen dutenean.

5. Honako kide hauek guztiak izango dira, hitza eta botoa dutela, Astigarragako Udal Plangintzako Aholku Kontseilua osatuko dutenak.

a) Presidentzia. Alkatea izango da presidente, Aholku Kontseiluko Presidente den aldetik. Bileren ondorioetarako presidentzia eskuordetu ahal izango dio Kontseiluko presidenteordeari.

b) Kontseilukideak. Gainerako hango

3. A propuesta del Presidente/a, del vicepresidente/a o de un tercio de los/as vocales miembros, podrán participar en las reuniones del Consejo como asesores/as con voz pero sin voto:

— Las personas técnicas encargadas de la redacción de los planes urbanísticos.

— Personas expertas y de reconocido prestigio tanto en materia de Urbanismo como Medio Ambiente.

— Y otro personal técnico especialista que por el tema a tratar se considere adecuada su presencia en el Consejo.

La presencia de este personal técnico en las sesiones del Consejo cuando sea a petición de un tercio de los/as vocales del mismo, deberá solicitarse al Presidente o Presidenta, tras conocer la convocatoria de la sesión y antes de la celebración de la misma con antelación suficiente para requerir su asistencia.

4. A propuesta del Presidente o Presidenta podrán asistir al Consejo con voz pero sin voto personas, colectivos o plataformas de defensa del ámbito afectado que así lo soliciten.

5. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Astigarraga está integrado por la totalidad de sus miembros con voz y voto:

a) Presidencia. Ostentará la presidencia el Alcalde/Alcaldesa en cuanto Presidente/a del Consejo Asesor, quien podrá delegar la presidencia efectiva de las sesiones en el Vicepresidente o Vicepresidenta del Consejo.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

berezko kideak izango dira Kontseilukide. Kide gonbidatuek ez dute boto eskubiderik.

Udaleko idazkari nagusia edo hark eskuordetzen duen teknikaria izango da Aholku Batzordeko idazkaria. Idazkariari dagokio, Lehendakaritzaren zuzendaritzapean, Kontseiluari laguntza eta aholkularitza juridikoa ematea.

b) Vocales. Serán vocales el resto de sus miembros. Los y las miembros invitados/as no tendrán derecho a voto.

Actuará de Secretario/a del Consejo Asesor el Secretario/a General del Ayuntamiento o técnico/a en quien delegue. Al Secretario/a le corresponderá, bajo la dirección de la Presidencia, la asistencia y asesoramiento jurídico al Consejo.

7. artikulua. Aholku Batzordeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.

1. Aholku Batzordeko kideak alkateak izendatuko ditu. Ordezkarik baldin badira, hona hemen nork proposatuta egingo den izendapena:

a) Udal taldeen ordezkariek, udal taldeek proposatuta.

b) Gainerako ordezkariek, nor bere erakunde ordezkaritza organoek proposatuta.

Udal kontseiluetan parte hartzen duten elkarte eta erakunde ordezkariek, nor bere elkarte edo erakundeak proposatuko ditu.

2. Postu bakoitzeko, titularra eta bi ordezko izendatuko dira.

3. Batzordekideak izendatzeko, beharrezkoa da alde zuzenetik kide horiek onartzea.

Artículo 7. Nombramiento y cese de los vocales y las vocales del Consejo Asesor.

1. Los vocales y las vocales del Consejo Asesor serán nombradas por el Alcalde/alcaldesa, efectuándose la propuesta, en el caso de representación, según lo establecido en los apartados siguientes:

a) Las personas representantes de los grupos municipales, a propuesta de éstos.

b) Las restantes personas representantes, a propuesta de los órganos representativos de las respectivas Entidades.

Las personas representantes de Asociaciones o Entidades participantes en los distintos Consejos municipales serán respectivamente propuestas por dichas Asociaciones o Entidades.

2. Se nombrarán por cada puesto una persona titular y dos suplentes.

3. El nombramiento de los y las vocales del Consejo requerirá la aceptación previa por parte de éstas.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

4. Aholku Batzordeko kideen agintaldia, udal hauteskundeak egitearekin batera bukatuko da. Udaleko zinegotziak diren batzordekide titularrek galdu egingo dute kargua udalbatzaren agintaldia amaitzen denean.

Hala ere, beste kausa hauek direla eta kargutik kendu ahalko dira, orobat:

- a) Kideak berariaz karguari uko egiten dionean.
- b) Epai judizial irmoz, kargu publikoan aritzeko ezgaitasuna edo gaitasun gabetzea deklaratu zaionean.
- c) Batzordekidea proposatu duen erakundeak edo erakundeek kentzen dutenean.

5. Batzordeko kideak euren karguagatik baldin badira batzordeko kide, kide izateari utziko diote kargua galtzean.

6. Postu hutsak, izendatzeko ezarritako bide bera erabiliz beteko dira.

8. artikulua. Ordainsaria.

Aholku Batzordeko kideek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik izango euren zereginak egiteagatik.

4. La extinción del mandato de las personas que ostenten el carácter de miembros del Consejo Asesor coincidirá con la celebración de elecciones municipales. Los vocales titulares que ostenten la condición de concejales, cesarán, en todo caso, cuando expire el mandato de la corporación municipal.

No obstante, podrán ser cesadas también por las siguientes causas:

- a) Por renuncia expresa.
- b) Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.
- c) Por remoción de la organización o entidades proponentes.

5. En caso de las personas que ostenten el carácter de miembros por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.

6. Las vacantes se proveerán en la misma forma establecida para su nombramiento.

Artículo 8. Remuneración.

Las personas que ostentes del carácter de miembros del Consejo Asesor no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

III. KAPITULUA
KONTSEILUAREN ANTOLAKETA Y
FUNTZIONAMENDUA

CAPITULO III.
ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO
DEL CONSEJO



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

9. artikulua. Organoak

Honakoak dira Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzionamendu organoak:

- a) Lehendakaritza eta Lehendakariordetza.
- b) Osoko bilkura.

10. artikulua. Aholku Batzordearen Lehendakaritza.

1. Udalbatzako alkatea izango da Udal Plangintzako Aholku Batzordeko lehendakaria.

Lehendakaria ez dagoenean, edota lehendakariak kargua espresuki eskuordetzen duenean, lehendakariordeak beteko du kargua.

2. Lehendakariari honako funtzio hauek dagozkie:

a) Aholku Batzordearen eskumenen arloan indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzea.

b) Honako araudi honek Aholku Batzordeari esleitzen dizkion xedeak betetzen direla bermatzea.

c) Hirigintzako plangintzaren eskumena duen Informazio batzordeari hartutako akordioen eta egindako deliberamenduen berri ematea.

d) Aholku Batzordearen osoko bilkurak hartutako akordioak betetzen direla zaintzea.

e) Aholku Batzordearen ordezkaria izatea instituzioen, erakundeen eta batzordeen aurrean.

Artículo 9. Órganos.

Los órganos de funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal son:

- a) La Presidencia y la vicepresidencia.
- b) El Pleno.

Artículo 10. Presidencia del Consejo Asesor.

1. La Presidencia del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal corresponderá a la Alcaldía de la Corporación municipal.

En caso de ausencia de la Presidencia, o por delegación expresa de la misma, ésta será ejercida por la Vicepresidencia.

2. Corresponde a la Presidencia las funciones de:

a) Garantizar el cumplimiento de la legislación vigente en el ámbito de las competencias del Consejo.

b) Asegurar el cumplimiento de los fines que al Consejo asigne este Reglamento.

c) Informar a la Comisión informativa en la que resida la competencia del Planeamiento urbanístico de las deliberaciones y acuerdos alcanzados.

d) Velar por el cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Pleno del Consejo.

e) Ejercer la representación del órgano asesor en instituciones, entidades y comisiones.

f) Acordar las convocatorias de las sesiones ordinarias y extraordinarias y



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

f) Ohiko zein ezohiko bilkurak deitzea eta gai zerrenda zehaztea.

g) Aholku Batzordeak onartutako eskaera, errekerimendu eta jarduera guztiak dagokion udal organoari bideratzea.

h) Berak, lehendakariordeetako batek edota batzordekideen erdiak hala erabakita, aztertuko diren gaitan adituak diren pertsonak gonbidatzea Aholku Batzordera –hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa–.

i) Aholku Batzordearen lehendakari izateari dagokion funtzioak betetzea.

j) Eslei dakioken beste edozer funtzio.

3. Aholku Batzordearen bilkuretan, honako eskumen hauek izango ditu lehendakariak:

a) Bilkuren buru izatea, eztabaidak moderatzea, bilkuretan ordena mantentzea eta, beharrezkoa izanez gero, bilkurak bertan behera uztea, erabakia justifikatzen duten arrazoiak izateagatik.

b) Bozketaren batean berdinketa izanez gero, kalitatezko botoa ematea.

11. artikulua. Aholku Batzordearen Lehendakariordetza.

1. Hirigintza Batzordeko lehendakaria den zinegotzia, edo bestela, beronek ordezkatat aukeratzen duen batzorde bereko zinegotzia izango da lehendakariordea.

2. Hurrengoa izango da lehendakariordearen egiteko nagusia: Lehendakaria ordezkatzea kanpoan

fijar el orden del día.

g) Canalizar ante el órgano municipal correspondiente todas las peticiones, requerimientos y actuaciones aprobadas por el Pleno del Consejo.

h) Invitar al Pleno del Consejo, con voz pero sin voto, a las personas que estime oportuno él, cualquiera de los Vicepresidentes o la mitad de los vocales, en razón de los temas a tratar.

i) Ejercer las funciones inherentes a la condición de la Presidencia del Consejo.

j) Cuantas otras pudieran serle atribuidas.

3. En las sesiones del Consejo serán competencia de la Presidencia:

a) Presidir las sesiones, moderar los debates, mantener el orden en el transcurso de la sesión y, en su caso, suspenderlas atendiendo a causas justificadas.

b) Decidir, mediante el voto de calidad, en caso de que se produzca un empate en una votación.

Artículo 11. Vicepresidencia del Consejo Asesor.

1. La Vicepresidencia corresponderá al o a la concejal presidente de la comisión de urbanismo, o en su defecto, al o a la concejal de la misma comisión en quien delegue.

2. La misión fundamental de la vicepresidencia será la sustitución de la Presidencia en los casos de ausencia en



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

denean, gaixorik dagoenean edota kargua hutsik dagoenean.

el ejercicio de su cargo, vacante o enfermedad.

12. artikulua. Aholku Batzordearen osoko bilkura.

Artículo 12. Pleno del Consejo Asesor.

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osoko bilkura honako araudi honen 6. artikuluan aipatutako kide guztiek osatzen dute, baita idazkariak ere –azken horrek hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez bozkatzekoa–. Alkatea/lehendakaria izango da osoko bilkuren burua.

1. El Pleno del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal, está integrado por todos los miembros a que se hace referencia en el artículo 6 del presente Reglamento, así como por la Secretaría del Consejo, que asistirá a las sesiones del Pleno con voz pero sin voto, y es presidido por la Alcaldía- Presidencia.

2. Osoko bilkura Aholku Batzordearen erabaki organo goren da, eta honako eskuduntza hauek ditu:

2. El Pleno es el máximo órgano de decisión del Consejo, y le corresponden las siguientes atribuciones:

a) Aholku Batzordearen lan programa lantzea eta aurrera eramaten dituen jardueretan lehentasun ordena zehatza ezartzea.

a) Elaborar el programa de trabajo del Consejo y establecer un orden de prioridad en sus actuaciones.

b) Osoko bilkurako gai guztien inguruan iritzia ematea.

b) Pronunciarse sobre todos los temas por los cuales se le haya convocado.

c) Hala egokituz gero, aurreko osoko bilkuraren akta onartzea.

c) Aprobar, si procede, el Acta de la Sesión anterior al Pleno.

d) Udaleko egiturazko antolamenduko plangintzan lantzen edo ezartzen diren azterketa, programa, zuzentarau eta jarduera ildo guztiak ezagutzea eta beraien gaineko informazioa biltzea, plangintza egiten laguntzeko.

d) Recabar y conocer cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación se elaboren o establezcan en la formulación del planeamiento de ordenación estructural del municipio para colaborar en su elaboración.

e) Araudi honetako 5. artikuluan zehaztutako txostenak egitea.

e) Emitir los informes a los que hace referencia el artículo 5 del presente Reglamento.

f) Udaleko gobernu organoek eskatutako azterketak egitea –betiere, beraien eskumenen barrukoak badira–.

f) Realizar los estudios que en el ámbito de sus competencias le sean requeridos por los Órganos de Gobierno Municipal.

g) En todo caso, informar una vez iniciada



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

g) Edozer kasutan, plan orokorraren, edo haren berrikuspen osoaren edo partzialaren espedienteen, idazketa teknikoak hasitakoan informazioa ematea.

h) Egokia dela uste izanez gero, ez-egiturako antolamenduko edozer hirigintzako agiriren gaineko informazioa eskatzea.

13. artikulua. Aholku Batzordearen Idazkaritza.

1. Alkateak hirigintza arloko funtzionario bat izendatuko du idazkari izateko, eta hurrengo funtzioak izango ditu alkatea bera buru duela:

a) Osoko bilkuren deialdiak egitea –gai zerrenda eta aurreko bilerako akta ere helaraziko die batzordekideei–.

b) Aholku Kontseiluaren osoko bilkuretan izatea –hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez bozkatzekoa–, aktak egitea eta aktak lehendakariarekin batera sinatzea.

c) idazkari izateari lotutako gainontzeko lan guztiak.

la redacción técnica del plan general, o de los expedientes de revisión total o parcial del mismo.

h) Solicitar, si lo estima conveniente, información sobre cualquier documento urbanístico de ordenación no estructural.

Artículo 13. Secretaría del Consejo Asesor.

1. La Secretaría del Consejo Asesor, cuya labor será asignada por el Alcalde, bajo la presidencia del mismo ejercerá las siguientes funciones:

a) Cursar las convocatorias del Pleno, acompañando a las mismas el orden del día y el acta correspondiente a la sesión anterior.

b) Asistir, con voz pero sin voto, a las sesiones del pleno del consejo y elevar acta de las mismas y firmarlas junto con la Presidencia.

c) Desempeñar las funciones inherentes a su condición.

III IV. KAPITULUA FUNTZIONAMENDUAREN ARAUBIDEA

9 14. artikulua. Bilerak.

1. Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen bilerarako deia egingo da, eta bilera egingo du, araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz Aholku Batzordearen txostena nahitaez behar duten planeamenduko espedienteek

CAPÍTULO III IV RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO

Artículo 9 14. Sesiones.

1. El Consejo Asesor del Planeamiento se convocará y reunirá siempre que resulte necesario respecto a los expedientes de planeamiento que deban ser informados con carácter preceptivo por el Consejo según lo establecido en el



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

dagokienez beharrezkoa den aldiro. **Bilera hori, txosten hori emanez bukatuko da.**

2. Orobat, Aholku Batzordeak bilerak egin ahal izango ditu komeni denean. Bilera horietarako deia batzordeburuak egingo du, bere ekimenez edo Aholku Batzordeko kideen herenak -gutxienik- eskatuta.

3. Aholku Batzordearen bilerak publikora irekiak izango dira. Berezko kideak ez diren parte-hartzaileak hitza hartu ahalko dute Aholku Batzorde buruaren baimenarekin.

10 15. artikulua. Bertaratutakoen quoruma.

~~Bilkurak, eztabaidak eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo haiek eskuordetzen edo ordeztzen dituzten pertsonak bertan egotea, eta, gutxienez, Kontseiluko kideen laurdenak. Quoruma bilkura osoan mantendu beharko da.~~

Bilkurak egiteko, lehenengo deialdian beharrezkoa izango da lehendakaria eta gutxienez batzordekideen laurdena bertan izatea. Quorum hori bilera guztian zehar mantendu beharko da. Beharrezko quorumik ez badago lehenengo deialdian, ordu erdi beranduago eta bigarren deialdian, bilkura berdin-berdin egin ahal izango da bertaratutakoekin, beti ere beraien artean Lehendakaria edo araudiaren arabera berau ordezkatzeko duena eta idazkaria, bertan egon beharko duelarik.

artículo 5 del presente Reglamento. **Dicha sesión concluirá con la emisión del informe citado.**

2. El Consejo podrá también celebrar sesiones por razones de conveniencia, que serán convocadas por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte del número de miembros del Consejo.

3. Las sesiones del Consejo Asesor del Planeamiento serán abiertas al público. Las personas asistentes no vocales podrán tomar la palabra con el permiso de la Presidencia del Consejo Asesor.

Artículo **10 15.** Quórum de asistencia.

~~Para la válida celebración de las sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos será necesaria la presencia de las personas que ostente la Presidencia y la Secretaría o de las personas en quienes deleguen o les sustituyan y de, al menos, el cuarto de los/as miembros del Consejo, quórum que habrá de mantenerse durante toda la sesión.~~

Para la celebración de las sesiones será necesaria, en primera convocatoria, la presencia de la Presidencia y de, al menos, un cuarto de los miembros del consejo, no concejales, quórum que habrá de mantenerse durante toda la sesión. Si dicho quórum no se alcanzase en primera convocatoria, media hora después y en segunda convocatoria, se podrá celebrar la sesión igualmente con la participación de los miembros presentes, entre los que debe de estar necesariamente la presidencia o quien reglamentariamente le sustituya y la secretario/a.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

11 16. artikulua. *Bileretarako deiak egitea eta bilerak egitea.*

1. Aholku Batzordeak nahitaezko txostena eman behar duen bileretarako deia, plangintza aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia hasi aurretik egin beharko da; edo, aurrerakinik ez bada, hasiera batean onartutako deia/edo, hasiera batean onartutako dokumentuaren jendaurreko erakustaldia hasi aurretik. Betiere, bilera eguna baino hamar bost egun baliodun lehenago egin beharko da deia. Deialdiarekin batera, betiere bilerako gaien zerrenda bidaliko da. Eguneko gai zerrendako gaiet buruzko informazioa, epe berean izango da Aholku Batzordeko kideen eskura.

2. Aholku Batzordeko buruak, bere ekimenez, edo batzordeko edozein kidek eskatuta, proposatu ahal izango du -presakako bidez eta deliberazioa hasi aurretik- gaien zerrendan sartu gabeko beste edozein gai sartzea, baldin eta gehiengoaren aldeko botoak gaia premiazkotzat jotzen bada. Hala ere, ezingo da deliberaziorik egin edo erabakirik hartu gaien zerrendan sartu gabeko ezein gaitaz, salbu eta Aholku Batzordeko kide guztiak presente badira eta gaia presakakotzat jotzen bada gehiengoaren aldeko botoz.

3. Deialdiak batzorde kide gonbidatuei ere egongo zaizkie.

Artículo 11 16. Convocatoria y celebración de las sesiones.

1. La convocatoria de las sesiones en las que el Consejo deba emitir informe preceptivo, deberá realizarse con anterioridad al inicio de la información pública del Avance, y/o del documento aprobado inicialmente o del documento aprobado inicialmente si no existiera Avance, y realizarse siempre con un mínimo de diez cinco días hábiles de antelación a su celebración. A la convocatoria se acompañará en todo caso el orden del día de la sesión. La información sobre los temas que figuren en el orden del día estará a disposición de las personas miembros del Consejo en igual plazo.

2. La Presidencia del Consejo, por iniciativa propia o a petición de cualquiera de las personas que ostenten el carácter de miembro del mismo, podrá proponer la inclusión, con carácter de urgencia y previo al inicio de su deliberación, de cualquier otro asunto no comprendido en el orden del día, siempre y cuando sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría. No obstante, no podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el orden del día salvo que estén presentes todos/as los/as miembros del Consejo y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

3. La convocatoria de las sesiones también se realizará a los/as miembros invitados/as del Consejo Asesor.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

12 17. artikulua. *Tokia eta aktak.*

Aholku Batzordearen bilerak Udalaren lokaletan egingo dira. Bilerak bakoitzari buruzko akta egingo du Aholku Batzordeko idazkariak. Akta, Aholku Batzordeko kideei bidaliko zaie, hamabost egun balioduneko epean. Eta, egiten den hurrengo bileran, akta onartu ala ez erabakiko da.

Artículo 12 17. *Lugar y actas.*

Las sesiones del Consejo Asesor se celebrarán en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta por la Secretaría del Consejo, que será remitida a sus miembros en el término de quince días hábiles y será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

13 18. artikulua. *Deliberazioak.*

Aholku Batzordeko buruak zuzenduko ditu bilerak, eztabaidak antolatuko, eta bileretako ordena egokia bermatzeko komeni diren neurriak hartuko.

Artículo 13 18. *Deliberaciones.*

La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

14 19. artikulua. *Erabakiak hartzea.*

1. Aholku Batzordearen erabakiak, bertaratuen gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, batzordeburuak kalitatezko botoa erabiliko du. Betiere, boto partikularrak eman ahal izango dira, eta bat ez datozenek adierazitako kontrako arazoak jasota geratu ahal izango dira.

2. Aholku Batzordeko idazkariak egingo duen eta aztergai den hirigintza espedienteen sartuko den aktan jasota geratuko dira hartutako erabakiak.

Artículo 14 19. *Adopción de acuerdos.*

1. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los miembros asistentes. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.

2. Los acuerdos adoptados serán integrados en el acta que se elaborará por la Secretaría del Consejo y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis.

15 20. artikulua. *Lan batzordeak.*

1. Hirigintza plangintzari lotutako gai zehatzak jorrazeko lan batzordeak eratu

Artículo 15 20. *Comisiones de trabajo.*

1. Se podrán constituir comisiones de trabajo para el tratamiento específico de temas puntuales relacionados con el



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

ahalko dira, Aholku Batzordearen osoko bilkurako gehiengoak beharrezko jotzen badu.

2. Aholku Batzordeak zehaztuko ditu lan batzordeen osaketa eta funtzionamendua.

3. Lan batzordeek, jorratutako gaien eta ateratako emaitzen berri emango diote Aholku Batzordeari.

16.21. artikulua. Desegitea.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea, Udalbatzaren erabakiz indarrean den legediari jarraituz desegingo da.

Lehen Xedapen Gehigarria.

Araudi honetan berriaz aurreikusi gabekoari dagokionez, Udal Plangintzaren Aholku Batzordeak, bere funtzionamenduari eta jardunari dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean xedatutakoa beteko du.

Osagarri gisa, 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legean (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko Legea) 2568/1986 Errege Dekretuan (Toki Erakundeen Antolakuntzaren, Jardunbidearen eta Erregimen Juridikoaren Arautegia) ezarritakoari kasu egingo zaio.

Bigarren Xedapen Gehigarria.

Aholku Batzordeko buruari aginpidea

planeamiento urbanístico cuando ello se considere necesario por la mayoría del Plenario del Consejo.

2. La composición y funcionamiento de las comisiones de trabajo serán determinados por el Consejo.

3. Las comisiones de trabajo informarán al Consejo de los temas tratados y de sus conclusiones.

Artículo 16.21. Disolución.

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se disolverá conforme a la legislación en vigor por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento.

Disposición Adicional Primera.

En lo no previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por lo dispuesto en la sección tercera del capítulo II del Título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Supletoriamente, se estará a lo establecido en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986).

Disposición Adicional Segunda.

Se faculta a la Presidencia del Consejo



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

ematen zaio, araudi honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko beharrezko jarraibide guztiak eman ditzan.

para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en el presente Reglamento.

Lehenengo Xedapen Iragankorra.

Kontseiluaren txostena behar duten espedienteek, Araudia indarrean jartzean hasieran onetsita badaude, txostena beharko dute, behin-behinean onetsi aurretik.

Disposición Transitoria Primera.

Los expedientes sujetos a informe del Consejo que estuvieren aprobados inicialmente a la entrada en vigor del Reglamento serán objeto de informe antes de la aprobación provisional.

Kontseiluaren txostena behar duten espedienteek, Araudia indarrean jartzean behin-behinean onetsita badaude, ez dute haren txostenik beharko.

Los expedientes sujetos a informe del Consejo que estuvieren aprobados provisionalmente a la entrada en vigor del Reglamento no serán objeto de informe por el mismo.

Xedapen Indargabetzailea.

Erregelamendu hau indarrean sartzen denean, indargabetuko da «Astigarragako hirigintza-plangintzako aholku batzordearen araudia» (2008ko ekainaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Disposición Derogatoria.

A la entrada en vigor del presente Reglamento queda derogada el «Reglamento municipal regulador del consejo asesor de planeamiento urbanístico del Ayuntamiento de Astigarraga» (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 9 de junio de 2008).

Azken Xedapena.

Araudi honen indarraldia, araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik 15 egun baliodunera hasiko da.

Disposición Final.

El presente Reglamento entrará en vigor a los 15 días hábiles a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de